


Zuhaiska txiki edo mulu hau 60 cm-ko altuerakoa izaten da, eta Euskal Herrira mugatuz genero honen barruan azaltzen diren bi espezieetan ugariena ahabia da. Beste



tea berriz, mendi piriniar garaienera mugatzen da (1.500 m-tik gora — *Vaccinium uliginosum*). Ahabia lurraldean zehar sakabanaturik dago, batez ere 500 eta 1.500 metroko altitudeen artean. Lurzoru azidoak begikoak ditu, nagusiki baso eta txilardegietan azaltzen delarik, nahiz eta zenbaitetan harkaiztegi silizeoak ere kolonizatu.

Ahabia mulu hostoerorkorra da, zurtoin tenteak ditu (errizoma herrestari batetik jaiok) eta adarrak ugari. Hostoak, obatuak, zorrotzak eta launak izaten ditu. Normalean, apiriletik ekainera lortzen da, lore txiki dilindariak izaten dituelarik (berdexkak, arrosaz tindaturik). Fruitua baia biribildua da; berde-urdinska eta oso zapore gozokoa.

Vaccinium generoak ipar hemisferioko eskualde epel eta hotzetan eta mendi-eskualde tropikaletan 450 espezie inguru ditu, hauetarikoz batzuk beren fruitu jangarriengatik kultibatzen direlarik (*V. corymbosum*). Penintsulari dagokionez, 3 espezie besterik ez daude. Euskal Herrian hiru hauetatik bi azaltzen dira, lehenago adierazitakoaren arabera.

Ahabia sendabelartzat askotan erabili izan da. Alde batetik, landare honen baiak gordinik edo lehortuta janez gero beherakoa eta disenteria sendatzeko erremedio bikaina dela diote, bai hauek dituzten taninoei esker. Zientifiko batzuek diotenez, bai hauek duten substantzia bati esker, bakterioen hazkundera galazti egiten dute. Aipatu beharra dago fruitu hauekin konfitura egiten dela. Hostoek, berriz, dituzten tanino, arbutina eta glikosidoak kontutan hartuz diabetea arinduko luketela diote, elementu horiei propietate astringenteak ere egozten zaizkielarik.

Basoan zehar... ahabia

Joxepo Terés

FITXA TEKNIKOA

Ahabia

Familia:	Erikazeoak
Espezia:	<i>Vaccinium myrtillus</i>
Banaketa:	Sakabanatua
Habitata:	Baso, txilardegi eta harkaiztegi
Sendabelarra:	Bai

